

## LASTO-BOTATZEA

### JOKOAREN OINARRIA

Joko honetan, fardoa, sarde baten laguntzarekin, barra horizontal baten gainetik pasatu behar da.

### MATERIALAREN EZAUGARRIAK

**1.art.-** Fardoaren pisua gutxienez 12 kilo izango da. Fardo lastozkoa edo antzeko materialezkoa izango da, gogor lotuta eta sare batekin paketatuta, ernatu ez dadin. Gutxi gorabehera 70 cm luze, 40 cm garai eta 30 cm zabal izango da.

**2.art.-** Sardearen luzera osoa ez da 1,80 zentimetro baino handiagoa izango. Lehiakide bakoitzak bere sardea erabil dezake, edo bestela antolatzaileek eskainitakoa.

**3.art.-** Barra horizontala horrela altxatuko da:

30 zentimetroka, hasi 3.40 metrotik 4 metroko altuera arte.

20 zentimetroka, hasi 4 metrotik 5 metroko altuera arte.

10 zentimetroka, 5 metroz goiti.

### ARAUAK

**4.art.-** Zozketaz erabakiko da zein ordenatan arituko diren lanean lehiakideak.

**5.art.-** Parte hartzaile bakoitzak, saiakera bat egin ondoren, bigarren saiakera egin ahal izateko, gainontzeko parte hartzaileek beraiena egin arte itxaron beharko du.

**6.art.-** Altuera bakoitzean hiru saiakera egin ahal izango dira. Kale eginez gero, parte hartzailea kanporatua geldituko da.

**7.art.-** Altuera bakoitzean ere, zozketaz erabakiko da zein ordenatan arituko diren lanean lehiakideak.

**8.art.-** Proba, altuera handiena lortu duenak irabaziko du.

**9.art.-** Berdinketa gertatuz gero, proba hasten denetik alturarik handiena eta saiakera gutxien egin dituen parte-hartzailea izango da irabazlea.

Berdinketa hausten ez bada, jaurtiketa gainditzen ez duen lehena atzetik geratuko da, eta berdinketa badago, lehenengo jaurtitzeko duena lehenago geratuko da sailkapenean.

**10.art.-** Erabili beharreko materiala lehiaketan zehar honda daitekeenez, lehiaketa bakoitzeko bi sarde eta bi fardo beharko dira.